

PASAIA UDAL TXIT PRESTUAN KONTRATAZIO TXIKIAK EGITEKO PROZEDURA ADMINISTRATIBOEN GIDALIBURUA

1. art. Aplikazio-esparrua.

Arautegi hau Pasaia udalean burutuko diren kontratazio txikiko espediente guztiei aplikatuko zaie Administrazio Publikoen Kontratu Legeko 57. artikulua eta beste konkordanteen arabera eta 1997rako Pasaia Udalaren Aurrekontu Orokorra Exekutatzeko Udal Arautegiko 6. Oinarriaren arabera.

Honela bada, kontratu txiki bezala ulertuko dira bost milioi pezetaz gorakoak ez direnak, bi milioi pezetaz gorakoak ez diren hornidurak eta bi milioi pezetaz gorakoak ez diren aholkaritza eta asistentziaren eta zerbitzuen kontratuak.

Gastu txiki bezala ulertuko dira bostehun mila pezetaz gorakoak ez diren hornidurak (zerbitzuak mantentzeko edota erraz hondatzen diren ondasun higikorak erostea), eta milioi bat pezetaz gorakoak ez diren lan urgenteak, hala nola galtzadak, espaloiak, pasealekuak, semaforoak, ibilgailuak eta konpontzea.

Kantitate hauetan sarturik dago Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

2. art. Gastu txikien espedienteak izapidatzea.

Hona hemen gastu txikiei aplikatu behar zaien prozedura:

1. Dagokion saileko arduradunak gastu-proposamena egingo du.

2. Proposamen honi buruz Kontuhartzaitzak txostena elaboratuko du krediturik badagoen ala ez, dagokion baimena emanaz.

3. Gastua baimendurik, Zerbitzuburuak eskaintzak eskatuko dizkie, ahal izanez gero behintzat, kontratua betetzeko gai izango diren hiru enpresari eta aukeratuarekin kontratuaren prezioa finkatuko da, guztia espedientean jasoz.

4. Gastua exekutaturik, Zerbitzuburuak Kontuhartzaitzari bidaliko dio egindakoa, kontratistak luzatu eta hark behar bezala adostutako fakturarekin batera.

3. art. Gainerako gastu txikien prozedura.

Hona hemen gainerako kontratu txikien prozedura faseka azalduko da:

1. Dagokion saileko arduradunak gastu-proposamena egingo du, kontratu bakoitzari aplikatu behar zaizkion arau espezifikoaren arabera.

2. Bidezkoa denean, aurreko proposamenari obra-proiektua, preskripzio teknikoaren plegua eta klausula ekonomiko-administratiboaren plegua erantsiko zaizkio.

3. Honela burututako espedienteaz txostena luzatuko dute Idazkariak eta Kontuhartzaitzak, azken honek gastuaren baimenaz jardungo duelarik.

4. Gastua baimentzeko Alkatearen Dekretua.

5. Gastua baimendurik, Zerbitzuburuak eskaintzak eskatuko dizkie, ahal izanez gero behintzat, kontratua betetzeko gai izango diren hiru enpresari.

6. Plikak alorreko arduradunak irekiko ditu eta honek, aurrez txosten teknikoa eta, kasu balitz, juridikoa ere emanik, Alkateari igorriko dio dagokion esleipen-proposamena.

7. Gastuaren gaitasunaz Kontuhartzaitzaren txostena.

8. Alklatetzaren dekretua gastua aginduz.

9. Gastua exekutatzea.

10. Faktura espedientean sartzea Saileko arduradunaren adostasunarekin eta gastua agintzeko kompetentea den Alkatearenarekin.

4. art. Dokumentazio Administratiboa.

Gastu txikietan, adjudikatariari ez zaio inolako dokumentaziorik eskatuko, ez bada dagokion faktura.

Gainerako kontratu txikietan lizitatzaleei indarrengo legeriak eskatzen duen dokumentazio administratiboa exijitu ahal izango zaie, klausula ekonomiko-administratibo berezien dagokion pleguan adieraziko dena.

Honen guztiaren kalterik gabe, nahiz Administrazio Zentraleko nahiz Komunitate Autonomoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dagoela ziurtatzen badu, obra-lizitazio guztietan enpresariak ez du bere nortasuna, gaitasun juridikoa, teknikoa, finantzieroa eta ekonomikoa kreditatzeko dokumenturik aurkeztu beharrik izango.

5. art. Fidantzak.

Ordenantza honetako eremuan sartzen diren kontratuetan, ez da eskatuko behin-behineko fidantza depositatzea. Behin-betiko fidantza, berriz, 500.000 pezetaz gorako horniduren kontratazioetan bakarrik eskatuko da eta 1.000.000 pezetaz gorako obra-kontratuetan. Kasu hauetan, eta indarrengo arautegiak dioenaren kalterik gabe, behin-betiko fidantzaren zenbatekoa, oro har, lizitazioko oinarriaren %4 izango da edota bestela esleipen- prezioarena.

Behin-betiko fidantza behin-betiko bihurtuko da dirutan edota indarrengo legislazioak ezarritako beste edozein formatan.

6. art. Obra- kontratuei aplikatzeko arau bereziak.

Obra-kontratazio txikiei buruzko espedientei ekiteko aipatu obraren beharra zurituko duen txostena beharko da, eta bertan jasoko dira estali behar diren beharrak, aktuatzeko jokabidea, epeak ea. eta bidezkoa balitz, beharrezko Proiektu teknioaren erredakzioa eskatuko da. Txosten hau obraren bultzatzailea den Saileko arduradunak erredaktatuko du eta Zerbitzuburuak edo Teknikariak burutu duenari bere oniritzia ematea aski izan daiteke.

7. art. Hornidura-kontratuei aplikatzeko arau bereziak.

Gidaliburu honetako 5. artikulua dioenarentzat kalterik gabe, behin-betiko fidantza ez da eskatuko ondasun kontsumigarriak edo erraz galtzekoak berehala entregatuko diren kasuetan, kontratuaren ezaugarriak kontuan hartuta beharrezkotzat kontsideratzen ez bada behintzat.

Dena dela, kontratista behartua dago hornidurako ondasunak aurrez erabakitako leku eta denboraz entregatzera, dagokion udal-departamentuak jasoko dituelarik. Udalak ez badu behintzat jasotzerakoan atzerapenik izan, kontratistak bere gain hartuko du entregatu aurretik ondasunek jasan duten galera.

8. art. Aholkaritza, asistentzia tekniko eta zerbitzuen kontratuei aplikatzeko arau bereziak.

Artikulu honetan sartzen diren kontratazio-espedienteak txosten batekin hasiko dira non agertuko diren egin behar den lanaren premia eta baita Udalak berak burutzeko material eta pertsonen eskasia ere. Txosten hau kontratua bultzatu duen Saileko arduradunak sinatu beharko du eta, kasu balitz, antolamendu eta pertsonal saileko arduradunaren adostasuna jaso beharko du.

9. art. Kontratazio Departamenduarekin harremanak.

Gidaliburu honetan araututako kontratuak Udal Kontratazio Departamenduari jakitera emango zaizkio, Departamendu honi ilero dagokion Saileko arduradunak sinatutako formulario bat bidaliz, arduradunak egiaztatuko duelarik bere Saileko kontratu bakoitzari buruzko datuak egiazkoak direla.

Formularioaren modeloa Kontratazio departamenduak egingo du eta honek beharrezkotzat iruditzen zaizkion espedienteak eskatu ahal izango ditu momenturako edota lagin bezala behar dituelako.

Xedapen adizionala.

Hemendik aurrera, eta 1. artikulua dioenaren arabera, aurrekontua exekutatzeko udal-arauek kontuan izango dituzte hemen agertzen diren kriterioak, eta kriterio hauek aldatzea erabakiko balitz, behin dagokion udal aurrekontua onarturik, Ordenantza hau aldatu ahal izango litzateke.